EUZKEL-ATALA

PIZKUNDIA

Itzaren gomutagarria! Atika deritxon erriko erleak samurkiro ezti gozoa egiten eben aldiko gomuta alaiak, itz onek burura dakarstaz. Antziñako ontzi edo zagi zarratan ardo barria eusko-gogaren jaietarako ekarri gura dabenaren elburu, bizitza barri eta joriagoa, orri zuridun idaztiak, biotz uts diran olerkiak, iturri ertzetako irudi lilluragarriak itz onek bat batean bere edertasunez dikurz.

Pizkundia osoz loratu zan errietan, Italia nausi da. Andra eta gizonak greziako argiz argituta neurtitz samurrak, idazti ederrak landuten, aldiatan iñarduen. Marmol zurietan gizon ospatsuen soin indartsuak, deunen gogo zerutarrak agertu eta eleiz oroigarriak guztien jainkotasuna eta edertia zeruratuten eben aldiko pizkunde zoriontsua. Alci alaigarri arek erririk eri eroiazan asaben eredu kementsuak, gudate garaipenak abesten iñarduen izneurlari trebeak.

Bere elburuagan erriak itxaropena eukon. Uzkurtza, aberria eta edertia bat egiñik ebiltzazan, doipuruak euren laguntzarik iñoiz ukatu barik, bakaldunen jauregietan abegi ona egiten eutsen. Ilunpetik argira igaroteko zubi ederra, Pizkundia izan zan. Aren mosuaz libururik aintzatsuenak argiratu ziran.

EUSKO-PIZKUNDIA

Barri dan bazkun begiko au maitasun egoz gaztetasunak goi gora daroa. Politika edo zizki-mizkietan bere kemena, oldargia eta sua jardueraziten ez dator, euskerazko idazti politak, geure erriaren jakintza loratu daroien ipuin eta esaerak, eusko gogo barruan egak zabaldu eziñik dagozan gurari samurrak, euren kaiolatik atara eta zeru urdin ziar bialdutera baño

Bere altzoan, Pizkundia deritxon bazkun onek, idazleak ezeze, margolari, ereslari, euskaltzale, olerkari eta abar besarkatu daroiaz.

Norbera zer dan, nora giñekoa dan jakitean zoriontasun guztien arroiña tente dagoala, jakintzak esaten dauskun ezkero, geure erriari zer dan eta zer izan bear daben erakutsi daiogun. Kanpotik ez, barrutik baño, eusko zaletasunak urten bearko dau, egizko igaliak jadetsi gura badoguz. Zenbat diru eta kemen lengo aldietan itxasoan goldetu ete doguz. ¡Batek ba'daki! Aizean erain ete dogun edo nago. Erriak ezeze, jakituntzat euren buruak orraztuten dituezenak be, eusko edesti, oitura, elerti eta beste gauza askotzaz, zer ete dakie?

Bere edertasun guztiak argi ezaututen dabezalako, Jainkoa beragan atsegin da. Norbera zer dan sakonetik dakianak, bere gauzetzaz be zintzoen, sutsuen jokatuko dau. Erriak asaben egite aipagarriak, bere izatearen garbitasuna esautuko dabenerako, eurrez toki guztietan lora euskotarrak sortuko dira, Eguzkiaren mosua zelai eta latxiñetan samurtsu lotuten danean, txiribita politez dana josirik ez ete dozue ikusi?

Pizkundiaren mosu biguna bizkaiko muru, egi eta lantxarretan zabaldutean, ziñez, ikusgarria izango da toki guztietan erneko diran lorak batutea...

Idazle guztiakaz txorta bat egiñik, anaitasuna ontzian orok itxasoratuaz, bakez, alai, kementsu eta azkar, mendi goietan argi dagin elburura igotea, Pizkundiaren zereiñik ederrena izango da.

EUSKERA, EUSKERAGAITIK?

Izkuntza beste elburu barik ez, ori gauz ezta, aberriagaitik baño. Euskera geure izatearen agerpen garaiena dalako, pizkundiaren lelengo orrialdean arro-arro egartuten da. Uzkurtza eta abertzaletasunaken esiak iraun dagian, pizkundiak euskera landu eta orraztuko dau.

Elearen pizkundiari bakarrik naiko ez deritxolako, eusko gogoaren beste kutun guztiak be biotz ganean gordeko ditu Euskera bide dala, erriaren txinparta piztu gura dau, suaren suak inguru guztietara geure izatearen zegaitia aberriaren garrantzia eroan dagian. Gaur abintza baño ez dan pizkunde au, biar egun ederra izango da. Bere ezpanetan abestia dager, eta gaztetasunaen abestiak, maitasuna edo itxaropena baño ez dauz agertuten.

Pizkundia, gaztea da eta gaztaroan egin ezin daitekeñik ez dager. Euskera zarrari gaztetasunan mosu bero bekokien emotera dator. Vicaire olerkari ospetsuak gaztetasunetzaz iñuazen neurtitzak pozik jarriko neuskioz:

Adorable et terrible, eblouissante et douce,
Tu m'apparus, JJeunesse, une rose á la [mam.

LAGUNTZA

Guztiakana bakez datorrenari ba, arren ez arri koskorrik bidera jaurti. Bere altzoan dakarzan lan orok garaipenaren seaskan kulunkatu dagizan, gorrotozko kiñuak baño maitasun txalo eta abestiak biarragoak ditu. Artez jokatu gura dabenari, laguntza ukatutea, aurka egitea baño samingorragoa izaten yako.

Diruagaz ezeze geure izenakin lagundu dagiokegu. Idazleak lumak zorroztu begiez, dirudunak sakelak zabaldu. Pizkundiak guztion zale kutunak izan bear dau. Laguntza onena, zintzoena, artezena, bakotxari maitasunak erakutsiko dautso. Maitasuna bizi-bizi-biotzean darozun artean egin gura dozun guztia, ez dozu biderik galduko eta. Nai izatea, alizatea ez da, maitatutea esku artean gauzea eukitea bez, gura izatea eta maitatutea baña bide erdia ezeze, amaia be bai'dala esan daikegu.

Pizkundia deritxon bazkun onetan alde guztietako anaik batutea, nire lei sutsuena izango da. Guztiok bat izatea, gauza ederra bai dala ¡Lorondo bateko larrosak maite badira, mile orritxu larrosa batean kutun badira, anaiok, zelan alkartuten ez gara?

Zeru garbi-garbia gabaren altzoan izarrez dabilen ordu urdiñean, eusko txirulak mendi goietan Pizkundia'ren abesti joten dau. Aizean dator, gogo maitalarien mosua bailitzan. ¡Abestiaren samurra!

LAUAXETA.

AREATZA (VILLARO)

BAKUA (MERKATUA)

Lengo igandean (domekan), uri onetako bakuan (merkatuan) salgei egon ziran: azak, lau eta sei txakurrean bakotxa; porruak, amabikoa (docenea), txakur bien eta iruen; piper lukainkarakoak eunekoak (sientoak), amaika erreal; sagarrak, sortzi txakur amabikoa; arrautzak, amar eta amaika erreal amabikoak; ollaskoak bikoak (pareak), amar laurlekotik (pesetatik) asaseire; konejuak (untxiak), sei eta sazpi laurleko bakotxa.

SALOSKUNDE (FERIA)

Uri onetan, larunbatean egin zan saloskunden, zekorrak, irugogeta amalau erlean erraldea, saldu ziran; beyak irurogei erlean erraldea.

Esne beyak be ugari batu ziran, baita idipusterri onak be. Txarriak barriz inguru guztietan agiri ziran.

Guztirik egoteko esten saltzalleak be ba'egozen.

LAMINDAON OTSOA. OÑESTUA YAUSI

Lamindaon oñestu (inixitua) yausi ta torre erdia lurrera bota dau, besterik yazoeztanean be sikian.

Kubaluko atxean, Dima'ko eleizkizunetatik etorrela, andra batek ardi narru ta tripak idoro ebazan eta otsoen bat an inguran egoelakoan, bide zior batetik etxerantza arin-arin badoa, ta ardia non ikusten daben garrikoaagaz arte batetik eskegita. Yoan etzera ta artzaiñak yakitun imini dituz; baña artzaiñak ardia egoan lekura eldu orduko ,ezen erresturik be ezan. ¡Anka biko otsoakaz kontuz!

V.

Grimm Anayen Ipuñak "Legoaldi"-rena

Idazti txanbeliña; berogetaka irudi politak; euskera erritar-gozogarbia; umeentzat irakurgairik ameskariena; 325 orrialdedun idaztia; iru laurleko. Salgoi idaztitegietan eta Begoña'ko Karmelo'n.

ZUMAIA

IDAZLE "GOIKO ETXERI"

Guztiz pozkiro izan zitzaidan zeure idatzia irakurtzea. Ordu onian izan zaitez etorria eta farrai aurrera ere, entzun esan dedanez ekaitz ondoren besteren batzuek agertzeko asmoetan omen dira.

Bai ote "Tala Mendi"? Eta zuek "Artadi" "Emengua", "Ni Naiz", "Itzungo Pristija" "Egi Zale" eta zuen berpiztea noiz? Jaiki, jaiki, lenago ez bazan, garaia eldu da, intxartu lozorrotik, barruz sendo, kanpoz gogor. Biotza bero, eskua gogor burua ariñ. Aupa len eta oraiñ.

KEIXETA ETA LAGUNARI

Zuen euskel antzerki zabalkundea eta gurendeak, txit atsegiñez beterik irakurtzea ,eusko anai guziok gozotsu artzen dizkiagu. Uri ontara zeuen etorrera, neuretzat beintzat txit atsegingarria izango uke.

Nai dozue etorri? Erantzun bada.

"OTARRA"-RI

Asketsi adiskide; zure asmô ederrak eta anaikorra "Josuren Jaiotzaz" guztiz naigabetu mindun bete bear ezak. Bigarren eskaera berriz ez dakit zertan dan, oraindiokan ez didate erantzupenik eman. Tamal izango litzake eusko anai batek, beste eusko anai batzueri eskuera bi egiñ ta ez ase biarra bat ere.

Agur bada eta nere kontu eta zuek Jaun batzordekuak noiz arte itxoi bear det erantzunen sai?

GUDARI.

MENDATA

JUAN ETORRIAK

Igaro dan igandian emen izan da Argintxoako Elorrieta neskatillia berarizko belbil baten etorri zan. Bere begira egoan mutil bat ze barri ekarriko ete eutsan baña belbil ori uste eban baño ariñago eldu yakon. Ondo etorrija opa dautsagu.

Kaixio Alonso, ¿zelan ibilli az juan dan igandian Bilbao'tik? merkatu barrijen ¡upielako! ibiltaldije egin ei dok euk alboti zendun laguna ¿nungua zuan? oso polita zuan, ¡baña kontuz, mutil! Meuma alcian beki ilunak yabizak!

LARRINAGA ERROTARIYA

Lenguan zizko tontorrian ibilli ei dok zalapartraka aundijen bat ,eure iskillu ta txakurragaz, puñu erramen batzuk be apurtu ei dozak da... ¡ollo gorrik bai? bai zera, gosia bai ederra; ¡esaz txarra izan baña! oin begija illun da txorija jo biarrian piñu adorrak apurtu.

AZERI,

GETXO - NEGURI

ASTEKO GORA BERAK

Askatasun apur bat geyago badago, baña eztago asko ondiño. Gure aurka danok joango dira bai alderdi batekoak eta bai bestekoak. Orregaitik ba, bakarrik gazozan ezkero, ta geure indarragaz lortu bear doguzan lez [illegible] iñoren mesederik itxaron barik, geu ondo ulertu ta alkartuten alegindu bear gara. Batez bere sinismen ta gurari bardiña daukazun euskotarrak, Sukarrieta'n illobiratuta dagon euskotar andiak erakutsi euskun bideari jarraituten dautsogun euskotarrak.

DEUN JOSEBA'RI ZAZPI IGANDEAK

Andiro egiten dira erri onetako txadonatan. Batez bere Deun Iñaki txadonan ainbat notin joanik elizkizun orretara.

JAU[illegible] BARRIA

Orain yatorku Deun Iñaki'ra jaupari barri bat. Txadonako txaneskindaria (organistia) izango da berau. San Sebastian'tar Domeka Lekeitio'ko semia, ta jakiña euskalduna. Zorionak, eta ia euskel abestiak ugari egiten badira berorren zuzentasunagaz.

OSATEBAKUNTZA BAT

Alan egi ndautse Albitzu'tar Andere andreari. Ondo aurkituten da, ta asko poztuten gara.

EUSKEL IDAZLE BARRIA

"Argia" Donosti'ko euskel asterokoan asi da idazten "Euskaldunako Langille bat" izen ordeagaz erri onetatik neure adiskide maite bat. Zorionak ta alan jarraitu geure elea goralduten.

TROKATIKO.

* * *

IRAKASLE BARRIA

Agirre'tar Pantzeske gure lengusiña izentau dabe erri onetako neskatotxuen irakasle, ta asko poztu gara bertako alaba ta euskaldun zintzo bat iminteagaz bertan irakasle aleginduko dala uste dot Pantzeske geure antxinako oitura garbiak eta kristiñau ikasbidia umeari euskeraz irakasten.

Geure gaztaroan toki beratan geuri be irakaste euskuen, ta urte askotan aian jarraitu daizula da geure guraria, baña beti bide zuzenetik, geure oiturak eta euskerea aldeztuten, geure txaloak eta Jaungoikoaren saria artu daizuzan.

Sorne zan lengo irakasle zarraren izena. Berrogeta urte igonak eruan ditu Jatabe'n irakasle. Okertxue izan ei da baña apur bat bear be bai umiak bide zuzenetik erabilteko. Irakasle barri orrek asko irakatsi dayuela eta urte askotan.

Mutikotxuak be, pozik dagoz euren irakasleagaz, baña zintzoa izan arren eztala euskalduna diñue.

Baserrietan geutariko irakasliak bear dira ori da euskaldunak.

Ia ba Jatabe'n batetik edo bestetik lortuten badogu.

¡Gora geure Jatabe!

JATABETARRA.

"JAUNGOIKO-ZALE"

BILLA-BIDEA

Aita Santua'ren eguna, *Gama.*
Aita Santu bi kafea atrtzen, *L. Angelo Jauregi.*
Batikano ta Kirinal, *Gotzon.*
Etxeko gora-berak.
Seminario barrirako emokunak.
Neure Ama Miren Neskutzari. Olerkia, *L'tar Eukeni.*
Au ori ta bestia.
Antzezko eriotzea ta egizko eriotzea, *G.'tar E.*
Talbot arrigarria, *Legoaldi.*
Katoliko Izparrak, *M'tar G.*
Errietako Izparrak, *Legoaldi.*

MAÑARI

ABADE BARRIYA

Erri-onetako txaunburu-lagun (koajutore) izentau dabe, Barrenetxea't. Polentzi yauna. Erriya ikuste netorrita astelenian egon zan emen; eta laster etorriko da geure artera, diñuenez.

MUTILTZA-AGURRA

Ibarra'ko Solaguren'tar Mikel "amerikanuak" datorren astian ezkontzen dalata, lengo eguenian oturantza bat bere ezagun eta aizkidiari emonaz, mutil oizitzari agur egin eutson.

Oturantza orretan alaitasuna, poza ta berbia ugeri izan zan. Urte askotan umore orregaz.

EDURTZARA YOLASTUTEN

Aste onetako egun batzuetan, Bilbo aldeko gazte batzuk ikusten izan dira emendik gora Urkiola'rantza dioazala. An goiyan, edurtzan, sekuleko ibilketa ta yolasak egin ei-dituez. Esakunak diñoenez, "Atsegiñean nekerik ez".

BASO-KOIPETSU

Datorren igandean egualdi ona bada, gazte askok igoko dau atx eta mendiyetara, an bertan su egin, lukainka ta urdai errie gozo-gozo yan eta arratsaldie pozik igaroten.

MAÑARIKO.

OTZANDIYO

Gure txaunburu on eta agurgarri Itza'tar Ander yauna, aspaldiitxuan osasunian txarto samar ibili dala-ta, emengo txaunburutza itxi biarrian aurkitu da; ta lengo astian yuan zan Donostia'ra, an atsedenduaz osasunduteko asmuan.

Erri-onetan, bere yuekeriaz artu dogun tamala andiya izan da. Geure artian bederatzi urte egin dituz; ta aldi orretan Otzan diyoarroi egin dauskuzan mesede ta on egitiak, eztira errez esaten.

On-ona, langillia ta zintzua, bere itzaldi sutsu ta ederrakaz gure gogoak gozatuten izan dabezan artzaiñ arduratsu ta maitegarriya yuan yaku.

Txiroentzat esku zabalekua, aiskidientzat zintzua, ta erritarrentzat oso maitegarriya izan da. Eleizkizunak egoki eraldu ta atonduten bera lako gitxi. ¡Amaika eleizkizun txukun eta atsegingarri ikusi dogu geure eleiza onetan!

Euzkeltzale zintzo ta bikaña; geure ele zar ederra seme on bateri yagokon eran aldestuten beti alegintzen izan dan euzkeldun on-ona.

Gau gurtzaletan eta enparau berak iratziriko Eleiz-batzarretan be onik asko egin dau; orregaitik eureetan gelditu dan utsunia andiya izan da. Maite izan dogu; ta berak egin dauskuzan itzaldi ederrak auznartuaz, eta bere irakatzi onari yarraituaz, maitasun au geure gogoetan beti iraungo al-dau.

Agur ba, Ander yauna, ta Goiko Yaun onari beorren alde sarri otoitztuko dautsagu, ta beorrek be Yauna'ren aurrian Otzandiyo'ko erriya ez aztu.

BULKANO.

DURANGO

Soloaga'tar Kepe, andera agurgarrija, Matute'tar Andoni Jaunaren Amagiñarrebea ta aurtemin, emen aitatu geban Sorne ezkongeyaren amamea, arañegun Urtzi'ren besuetan ilda, atzo, larunbatez, iortzi eben goyan bego.

Gorpu-lagun eta txadon-eskarijetara notin asko-asko ixan zan.

Bere suin, alaba, illoba ta enparau senidiak tamalkide gayakezala esan biarrik be ez dabe.

Irakurliai otoi bana eskatuaz, etxekuak gora-adi, oraindik goyan ezpa-litz be, laster ixango dalako abespuluz atsekabiaren mingotsa kenduko dabe.

* * *

Elorriaga'tar Errikarta, emengo arrertilari artezijak atonduta, aspaldijetan baztertuta ixan dan antxiña-antxiñako arrizko gurutzea Udalak, agerganian, Tabira'ko Laubidietan jarri dau.

Gurutziak aurraldian, Miren Nekane ta Jon Deuna aldemenetan dauzala, Josu Gurutzian josijaren irudija dau. Atzaldian, Miren Matale ta Jon Deunak aldamenetan eta gurutziari etzanda ta Josu illotza altsuan dauala Ama Migabetua.

Arrertilarijak atontzia, eban erea galdu barik, egoki-egoki egin dautsa.

Udalari argitara atara daualako ta arrertilarijak lana bikainki egin daualako zorijona zor-jake ta egiz damotsegu.

* * *

Berrizko Txadon-Zañaren semia emengo Uribarri'ko Ertxadon-Zain ixentau dabe.

Urtoroko sari ixentaua anei ta bosteun laurleko ei-da. Ganera, lan iñardunez jaokazan eskubidiak. Gustira, polito bixi ixateko lain.

Osasun eta gusti gozau daixala.

* * *

Uriarte'tar Estepan, inguru gustiko, ta biarba, gaur Bizkai'ko eule bakarra, laramar urtian biarkuna, egunik galdu barik, beteta, Udaleko atabalerutzia jareinda Udalak len ixan dauan sariz zartsaritu dau.

Biarkuna onenbestian ondo bete dauana zartsaritutia egoki deritxagu.

Eta Estepan, zure ipuin, obeto jazokun politez dozuzan ezagun eta aizkidien belarrijak gozotutia ez jarein, jarrai baño.

* * *

Eusko-Langille Bazkunak urtoroko Batzar orokorra lengo igandian egin eban.

Bazkintzea barriztetian, Etxaniz'tar Endika lendakaritzat eta Laminiz'tar Imanol txindizaintzat autu euzan.

Lenguak lana ondo egin dabe: ia zuek obeto egiten dozuen, oinkartia beti aurreruntz egotzi biar da-ta.

TABIRATARRA.

AMARI - DEIKA

Pixoyal-trosa xarrez ongi bildua
amarentzat izar bat nintzan orduan
ezin deitu nik
itzez berari
ta etengabe negar, negar ta negar,
egiten omen nuan larritsu xamar
gose-egarriak
adiraziaz.

Bularraren gozoa kendu ta laster
seaskaren "kunkunaz" ikasi zuen
nere aoak
"ama" itz gozoa
eta geroztik beti maitasun-mintzoz
nere aoak samur "ama" zegion;
"amatxo, ogia;
ogi-zatia".

Bizitz-bide aldapan igo eziñak
goibelaldi, oñaze, naigabe miñak
biotz-muñean
minkatz sortzean,
amatxoren altzora bildu naz betl
dei kutun bioztiaz eri deiturik:
"Ai, ai, amatxo,
amatxo atoz".

Jaiotako kabitik egatu nintzan
ongi lumatutako txorien gisa.
Ba'det kabia
umez jantzia
baña alaitre bete nere bizitzan
biotza ixil-ixilka amaz da mintza
amets launean
ari danean.

Ta paketsu bizi dan kabi zarrera
maitetasun-egadaz nijoanean,
sukalondoan
otxan dagoan
amarekin laztanki egoten oi naiz,
txitoa kolkaz bezin samur eta alai
ikasbiderik
aski jasorik.

Bai, ludi-ekaitzetan ez galtzearren
lokarriz lotutzen nau Goiko Amaren
kai babesean
ama maiteak
ta gaur ama-semeok kaiatik larri
ziñez arrenga gaude geren Amari:
"Ama, ez utzi
lokarri autsi..."

Ekaitz naspil indarrez kaian sartu da
luditar itsasotzar amarratua
gure lokarri
ok eten nairik
ta gaur ama-semeok kaiatik larri
ziñez arrenga gaude geren Amari:
"zerutar Ama:
atoz gugana..."

ZUBIGAR.

OIARTZUN

Urtero bezela dantzariak beren soñu jotzalliakiñ eskien ibilli dira.

Olaizola'tar Luisa Errenderiko mutil batekin ezkondu da. Makutsoko Agirrezabala'tar Faustinok seme bat izan du Albisturrenekuak berdiñ. Zorion[illegible] Etxebeste tar Salbador errukietxean il da. Leñeneko amona ere bai (G. B.). Beko errotako aur jaijaio berria zeruratu da. Oraingo aldian dala ta 13 guarditatik 7 biali dituzte. Bijoaz ondotxo.

ENARA.

BASAURI'TIK

EZKONTZAK

Illonen 13'an ezkondu tzaku Lizazo'tar Mikel Azkue'tar Isabel neskatilla emengoatzaz. Zorionak eta urte askotarako osasuna opa dautsubat.

Baitabe ezkontzen tzaku gure lagun andie dan Urzelai'tar Patxiko illonen 22'an, Araba'ko neskatill politagaz, ta Madrill ikusteko gogoa deko. Ba kontuz Madrill aldetik, ze or paltso asko ai dagoz partikerako diruagaz ze askotxu kosten da irabazten.

Egubenien euki genduben antzoki jai politak.

Bidebietako "Farandula" deritxon aldra batek einda, da Lirio'ko errondalliak lagunduta oso ederto egon ziren danok batez be abestu ebenak. Olantxe aurrera bide orretatik, nik baño obetxuago eingotxube; esan "Basotxori bat"-ek ze an ikusi nube nta.

Emengo Udalak asarre diru dabe ba bekoki motzakaz ikusten dodaz. ¿Gizonak, guk zer erru deuku ba?

BASAURIKO BATEK.

ERRENDERI

¿Euskel eguna Errenderi'n? Ordu onetako erabakia egongo da baña ez det ziur jakindu, uste dut alaere emen izango dala uri onetako seme olerkari trebe ta euskeltzale ona dan Jauregi'tar Koldobika ber "Biotzkadak" eta gañera euskel olerki askoren omenez. Ia bade Errenderia euskelzaliak lo zorroan aspaldian egon bagera ere, jai obek antolatzen gure trebetasuna erakutsi biar degu ikusi ditugu Arrasate Zumarraga, Andoain eta goguan degu orain dik emengo batzokia iriki zanian egin genitun jai ederrak oraingua ez da gutxiago egin biar bañan gai onetaz urrenguan itzegingo det J. L. ziur jakitian Uria udalik gabe.

GAU GURTZALIAK

Guk beintzat uste genun eliz barrutiko talde batian zuzentasun geyago zegola eta uste ortan asko izan gera irugarren senidetzako buruak agindurik sartu geranok bañon ikusi degu elizakua biarrian U P'ko zuzentasuna dagola, bateko ezin ikusiya, besteko aginduaya eta tamatena ez duala bertako araudiak ezertako indarrik nai duten eran Madrid'etik ibiltzen dutela aurtengo batzordia ere an egin dute. ¿Zerk ekarri duala uste dezute au? guk otoitz batzuk euskeraz egin nai genitula ta asi zan baña mamiya ez da au.

LIZARBE.

GALDAKAO'TIK

ORAINTXE DA GURE ALDIJA

Erritar abertzale gustijok batu biar dogu. Era obarik ez dogu ixango ta.

BATZORDE BAT ¿EZIN LEI IXENTAU?

Nik uste dot baietz, ta aizturik geure arteko desbardintasunak, artu daigun bide zuzen bat, ta bere atzin, ¡guazan beti aurrera! ¡Euskotar odola dogunok, geure bixitasuna agertu biar dogu-ta! ¡Zabaldu daiguzan geure Batzokijak!

BITARTIAN ¿LO EGINGO ETE DOGU?

Ez orixe, lo arerijuak egiteko obe dala uste dogu, eurak lo dagozan arte, guk aurrera ta aurrera egin biarra dogu, luzaroko atzerapena dogu-ta. Gau ta egun be lorik barik, ekin da be, neiko zeregin eukiko dogu-ta.

AGATE DEUNA'RI OSPATUTA ELEXALDE'N IXANGO DA JAUPA BAT

Illa onen 16'gnan, erri onetako abesbatzako gastiak egingo daben jaupara, euroen adiskide gustijok joan biar gara. Goxeko bederatzietan ixango data, lo ederraren ostian, guztijok batera pozik igongo dogu antziñeko elexa zarrera. Beste batzuk aiztuta badauke elexa au, guk ez daigun iñoz aiztu.

GOITARRA.

ERMU

AGATE DEUNA

Egune orretan oitura dan lez, ikusi gendun aldra eder bat, aterik-ate, euren makilla eder banagaz euskel-abesti politak abesten... ona

Etxe ostian arrixa
Aren ganian txorixa
Sakel andi bategak gatoz
Batzen apur bat txindixa.

GAXUA

Gure adiskide eta euskeltzale osalaria dan Bengoetxea'tar Sabin, gaxo aurkitzen yaku. Jaunak sendatuta arin-arin ya txaidian ikusten dogu.

EZKONTZA

Irugarren deyak bukatu ondoren egun onen baten dogu bustartzeko lagun ona dan Yarza'tar Bedita Berano Txikiko Barrenetxeko neskatiliakin.

Igaro dan igandean lenbiziko deyak irakurri zituan, gure lagun eta adiskide ona dan Kareaga'tar Pelirenak Barina'ko alaba batekekin. Biori zorionak.

ELANTXOBE'TIK

Erri onetara etorri yakuz bizitzaz eusko sendi bat, Abaskal'tar Eufeme, beren seme-alabakin neskatilla uran da "Eitzaga" auzo-umeako Bizkai-Ikastetxeko Irakaslea. Neure zorionak sendi oni.

Eta bardintzu "Ogoñepe" zeuri.

PELOTA TXAPELTZA

Lentxo egun baten irakurri nuen izparrangian nola aurten ere ospatuko zan pelota txapeltza; eta nola datorren eguna izentzeko nai duanak, ibili arin, enago eskier baña illa onen ogeta-zortzigarrenian da amaya. Igaz, sei biko uri ontatik izandu ziran, eta aurten ¿zenbat izango ote dira?

ERMU-ZALE.

LASARTE

EZKONTZA

Lengo asteazkenean, erri ontako txadon-nagusian ezkondu ziran gure lagun ona dan Galardi'tar Federiko ta Iradi'tar Felisa neskatxa.

Ezkon-ibiltea aragoza, Barzelona, Madrid eta beste erri batzuen barrena egiteko asmoa dute.

urte askoan bizitzea biotz-biotzez opa di-

Ongi ibilli ta zorion guzian alkarrekin zutet.

A-BI.

EIBAR

ONGI ETORRI

Ongi etorri sutsu bat zeuri "Itur-bero" idazle barri ori; ain idazkera polita daukozun ezkero ziur nago aurrera be jarraituko dozula, ez gero porrot egin Jainkoarren, emendik aurrera bakizu pozik irakorriko dirala zeure izpar guztijak.

KIRIKIÑO'REN JAUPA ¿NOI?

Kirikiño zanaren izenian Mañariko txadonian izan biar dan jaupa noiz izango dan garaiz iragarri dagiela bere ardurea daukienak.

Juan direan egunetan Ojanguren argazkin ospeptsubak egiñiko Kirikiño'ren antzeski aundi eder bat agiri izan da Errebal' Kale'ko agertoki baten.

Berari begira, an Mañari aldeko gomutiaz tamalki nenguala or nundik azalduten diran iru mutiko arrapala dan, ta bat batian gelditutten dira argazkiari begira; euretariko batek diño:

¡Ene! zein dok ori?

Ori... nunbaiten ikusi ete doten be ba'nagok eta... ¡ezin nok akordau! diño bere aldetik beste lagunak, eta geiagoko barik alde egin eben.

¿Nolan ezagutuko dozube ba mutikoak aiztu ezin leikian lez argazkia beste ezaugaririk ez ba'dozue?

Besterik ez izanik be "Abarrak" beintzat ezagututen ez dabien mutiko euskaldunik ez litzake egon biar, ta ori, izan ezin leikiana ez dala esan lei.

TXISTULARI GAZTIAK

Gazte ereszale diran batzuek geure txistua ikasten asi dira, ta eurondako txistu, tanbolin, da biar diran guztiak zuzentzeko, arpide bat eregi da batzokijan; beraz geure ereserti, oitura, ta jolas-garbi zale dirianak biartuak dagoz ain asmo ederrian dabiltzen gazte begikuen deyari erantzuten.

OÑA'RA

"Jaungoiko-Zale"-k diñosku Aita Larrañaga Josulauna Oñara irakaskintzara joakula.

Orain dala egun batzuk, izan leitikianik itzaldirik goienetarikuak egin euskuzan Josulaun jaktun onek, ta lerrotxu onen bitartez agurtzen dogu ain gogotxu gau bitan egi sakonak irakatsi euskuzan izlari bikaña.

Ongi ibilli Oña aldijan.

PAGOPE.

AZPEITI'TIK

AI, URREKO ZOROA GIZAJOA

"Araunz Mendi"-k ta "Iturri txiki"-k arrapatu dizkiote erriko izpar guzak ta iretzako zer ziok? Bat edo beste bai zeok ara bat.

APUSTUBA

Amar golpean ezetz autsi arrautz bat? Nai dekan guzia baietz. Amar peseta. Baziak; ondo begiratu ondokoak arrautza danik ez dek czagutzen. Bai, baña amar pesetak neretzat, amar golpian esan diagu kiki.

"ARAUNZ MENDI"-RI

Mille esker on, katolikuen biltokian, bi euskel antzerki politenetakoak badituzteta Bejondeizula A. M. orrelaxen laguntzen zaio euskel permitsuari bada beste idazlerik lagundu nai duenik premian gerade ba. Altzeta ona, mun zera?

ANTZEZKI BAT

Illaren 16'ean katolikuen biltokian arrats aldeko 6'tan asiko da ikuslez aroto dana betia izango da. Iturri txiki bertan izango da ta beraren berri berak emango du.

ERRUKI ETXEKO TXADON-TXUBAN

Zar berriketan ari dira Urban margogullea beriakin ari da Urban ona Josusen etxea da ta ondo apaindu Josus Berak saratuko zaituta. Etxe bertako loretegin erdian iturri gañian Ama Miraritsun irudia tako ura mirariz bete zazu askotan premi jartzen ari dira. Ama Laztana iturri berizaten degu ta.

URREKO ZOROA.

Zure bost laurlekoak yaso ditugu.—O.

ANDOAIN

NASTE BORRASTE

Gaxorik egun batzuek oyian egon ondoren jaiki da, gure lagun Ansa'tar Keperin en emazte Miren.

—Baitare ikusi degu aspaldi xamar gaxorik zegon Idigoras'tar Ander.

—Luzaro antzian gaxo dago, Barandiaran'tar Joseba'ren Ama Nekane. Laister sendatu dedilla ba.

ORRI BELTZA

—Zarautzen Jaunaren deyari erantzunez beragana juan da, gure osagille Amilibia'tar Austin'en izeba.

Laguntzen diyegu sendi guziyari atsekabe onetzaz.

ONGI ETORRI

—Ezkon ibilli ederra egin da etxeratu zaizkigu Aranburu'tar Alberta eta Irazu'tar Josebe. Urte askuan bizi ondo ba.

—Gudaritza aldia egitera juan dira Donostira, gure lagun Esnal'tar Illari eta Artola'tar Iñaki. Lenbaitlen osasunakin etorri mutillak.

BURUNTZA.

ARRASATE (MONDRAGON)

SUKARRIETA'RA

Mañari'n egiteko giñan batzarrera emengo eusko abertzaliak Sabin gure irakasle maitiaren il obira ostera ikertaldi ta ziñ egite bat, ezkatzeko asmua aukien, aurria artu doskue "Atarrene", "Altzeta", "Mendi Arno" eta abar. Arrasateko abertzaliak poz pozik ikusiko leukie Jel alderdiak, ta Jel Batzak asmu au euren gaiñ artu ta ainbat ariñen Euzaki'ko eusko abertzale guzti guztiok Sukarrieta'n bildutia.

EUSKO IDAZLE ABERTZALIEN BATZARRA

Il onen 23 egongo da Mañari'n jaupa, Kirikiño (G. B.)'ren gogo aldez ta jaupa ondoren batzarra, idazle guztiak eruan daixela bere tagunen asmuak, ta an ontzat artzen dana eruan deigun aurrera.

EUSKO LANGILIAK

Igandian euki zuten urteko batzar nagusia juan dan urtian inoiz euki daunik urterik onena euki dau batez ere bazkideakin, ori bat ere zabaldu dute Gipuzkuan egindako lanik aundixen batzuek erakutziaz.

TXARTO JAUSI DA

Gau gurtzalle batzuek euskera maite dutelako euren bazkunetik urten deixela eskatzia, guztiz txarto artu dute, buru puskat dauken guztiak. ¡Agindu edo eskabide ori etorri dan erritik euskaldunentzat etzan egundo gauza onik eldiko!

UDALA MENDI

ZEANURI

OTZERIN-MENDI'N TXIMIST-ARGIE

Or, olaburun argi makatza agiri da garimendi'ko auzunian laster ipinteko da betan ederto egiten dabela argi. Da Otzetxe danetan.

Ondo dago ori.

TXORIEK EZTIRA ATRAPAU BEAR

Arta-txoriekaz kanbaretan bakerik ezin dabela egin. Batzuk artoak guztiek yan bear dabela diñaude beste batzuk gariek. Abarrotsa ugari dabildie basetxeetan.

Benetan txoriok, garauten yango leikie errota batek iola.

GOGO-IÑARKUNE'N AMAYA

Gaur barukuan urten dabe 34 gizonezkoak igande arratsaldean goiko elexa nagosian azi ebezan gogo-iñarkunak eginda.

Oso pozik egon dira danok.

Urrengo tandea andrazkoena izango da.

EZKON DEYAK

Egunotan deitu direnak.

Agirregoikoa'tar Dunixi (elexondokoa) Basauriko neskatilleagaz Goikoetxea'tar Iñaki (Atxio) Lemona'koagaz da auron ixenik ez dakit.

LAPURREK BE BAI?

Arbizelai'ko basetxean ondiño bertara biziten yoan barik erretadore barrie... da aurretik urdei da yan gauzen batzuk eroan dabez. Da baten batzuk gatzean ondo dagozan ikusten edo sartu dira.

Eizean yoanda otsoen errastutik aurrerago aurkitu dabez auntzak ilde.

Emengo eiztariek Axpe gaztea buru dabela Garai'tar Patxi, Felix da Firpo yoan ziren martxienian basora. Andra mortutik kaneberetaraño ie gariraño'ko edertzen leku betzuetan dagola. Atx-armol batzun ondoan auntz bi guztiz zatitute da bata erdie edo yanda aurkitu eben, da ododlute inguruen larrin andie eginda aurokaz otsoak atrapau ebazanian. Erraztue andie ei dauko txakurren alango bikoa gitxienez Santa Ageda bera etorrite Sanbreaben bost ardi il dituz lengo gaubean.

Orain emengo aberedunak 500 laurleko opatuten dabe atrapetan daben eiztari edo dei dei egiten dautzie Zigoiti, Zuya, Orozko ta enpadu erriari ia baso pristi ankerori kentzean bada Gorbei mendi'tik.

BASERRITAR BAT.

OARRA

Idazti larregiz erdirik bere ezin emon izan dogu gaur.

O.

URALITA

Gran Vía, 5, 1.º—Teléfono 11078.